

Esatera jakintsuak

Euzko Gaztedi, 11. zk., 1949-04: 33.

ABRAHAM LINCOLN. – Gudara goazela kontu egin zazu; ez gera beti burrukan ibiliko ta bai alde batetik bai bestetik odol asko ixuri ondoren, inorenzat irabasirik gabe gudabukatzen danean, gure aurrean lengo gora-bera zarrak erabakitzeko, korapilo berak askatzeko.

EMIL DAZEY. –Detroit'ko langileen buru egiten duanak, beretako norbait komunista zala esan zualako, egia zala agertzeko eskatu zion batzar batean langilearrek.

"Ara –esan zion DAZEY'ek, zu komunista zerala nik ez daukat argi ta garbi erakusterik, bañan nik abere bat katu batek bezela "MIAU" egiten ikusi ondoren, katuak bezelakoxe izatza duala konturatzen ba'naiz, eta onetaz gañera katu batek bezela muturrean bizarrak ba'ditu, katuen señidetakoa ba'da, ta beti katuekin ba'dabil, katua dala aitortu bear".

ARANA GOIRI. – Baldin erri batek bere iskutza galtzen ba'du, beste arrotz batek oinperatu dualako izango da.

SOCRATES. – Gure zoritxar guziak pila aundi batean jartzera etorri ondoren, gero bakoitzari dagokiona biltzera etortzerakoan: zenbat geratuko liraken pozik berak ekarri zuanarekin bakarrik biurtu al ba'leza!!

ARTURO CAMPION. – Euskera iskuntz garratz eta baldarra ba'litz ere, nere begininia ainbat maiteko nuke.

FRANCIS DE CROISSET. – Guraso izatera uzterik gutxiena degunean etortzen gera, bere eginbearrak betetzeko diña geraden edo ez odolztu gabe. Ara nola diran semeak dituzten guraso asko ta gurasorik ez duren ainbeste seme ludian.

ARANA GOIRI. – Aberriaren biotzarentzat, euskeldun ez dan euskotar bakoitza arantz zorrotz bat da.

OSCAR WILDE. – Erri edo talde batean, bere bizierarekin pozik ez daudenak eaten dute beti aurrerapenerako lenengo oinkada.

Itzulpena: *Erritar* [Martin Ugalde]